



2022/05/07

THE YIN AND YANG OF GERRY LOPEZ

Gerry Lopez legendazko surflariak eta Stacy Peralta zinema zuzendari ospetsuak Espainian aurkeztuko dute, Donostiako Antzoki Zaharrean, uztailaren 17an, [The Yin & Yang of Gerry Lopez](#) filmaren estreinaldia.

Proiektzioa 20:30ean hasiko da eta, ondoren, hizketaldi bat egingo da hirian zenbait egun emango dituzten protagonistarekin eta zuzendariarekin. Sarrerak dagoeneko salgai daude [donostiakultura/sarrerak](#) webgunean.

Filmak surflari, shaper eta Pipeline olatuaren ikono berdingabea den Gerry Lopezen bizitza eta ibilbide profesionala erreparatzen ditu, Hawaiiko North Shore kostaldean. Stacy Peraltak, Sundance zinemaldian *Dogtown and the Z-Boys* (2001) filmarekin zuzendari onenaren saria jaso zuenak, Lopezen mitoa eta legenda argitzen ditu 100 minutu zirrarragarritan. Filmak 60ko hamarkadako Hawaiiko, 70eko hamarkadako Indonesiako eta surf profesionalaren hainbat garaitan funtsezkoak izan diren surflarien testigantza eta elkarrizketen artxiboko irudiak berreskuratu ditu.

Gerry Lopezen (Honolulu, 1948) bizitza ibilbidea etengabeko bilaketa bat izan da, surf oldarkorraren erradikaltasunaren eta kontzentrazio handiena eskatzen duen arrakasta baketsuaren arteko oreka aurkitu nahian. Yoga egitea izan da Lopezek egoera ia meditatibo horretara iristeko aurkitu eta erabili duen bidea. Horren adibide ezin hobea da Javan zeraman bizitza aszetikoa, Grajagan olatua (G-Land) lehenengo aldiz ezagutu eta surfeatu zutenean. Jarduera honek eragin handia izan du Lopezen bizitza osoan zehar eta modu sakonean aztertzen da hori pelikulan.

Gerryren kontaketa ildotik, biopic honek arreta berezia jartzen die bere bizitzako momentu erabakigarriari, hala nola Ala Moanako olatuan surfean hasi zeneko garaia, ohol laburrekin eragin zuten iraultza edo Lightning Bolt markarekin enpresaburu bihurtu zeneko aldia. Azkenean, Pipeline surf ikaragarri bati esker, Estatu Batuetako herri kulturaren ikono izatera heldu zen eta *Big Wednesday* (John Milius, 1978) edo *Conan the Barbarian* (John Milius, 1982) moduko filmetan aktore moduan aritu zen, azken horretan Arnold Schwarzeneggerrekin batera.

Pelikula honek Lopezen inguruan betidanik egon den misterio kutsua argitzen laguntzen du. Bizitza publiko eskasa izan du eta egin duen ibilbidea ezezaguna da askorentzat. Gaur egun, sasoi betean jarraitzen du, surfaz gozatzeko modu berriak arakutzen.

Aurkezpena antolatzeko lankidetzan aritu dira Surfilmfestival, ekitaldi berezi honetarako marka berreskuratu duena, Donostia Kultura eta Patagonia, dokumentalaren ekoiztetxea.



[Press Kit](#)

[Trailer ES](#)

[Trailer](#)

Patagonia Films

The Yin & Yang of Gerry Lopez filma Patagonia Films ekoiztetxeak produzitu du, outdoor artikuluen marka ezagunaren ekoizpen departamentuak, alegia. Zinemarekiko interesa betidanik egon da marka honen DNAn; Yvon Chouinard enpresako fundatzaile eta uneko jabekidea, 1960ko hamarkadan hasi zen pelikulak egiten. Patagoniaren dokumental eta film luzeak publikoaren sariarekin goraiatu dituzte SXSW jaialdian, zinemaldi ospetsuetan estreinatu dira, Netflixek erosi ditu eta oso lagungarriak izan dira mundu osoan ingurumenaren kontserbazio eta justiziaren arloko arazo jakinen inguruko kontzientziazioa sustatzeko.

Sinopsia

Stacy Peraltak zuzendu du surfaren historiako heroi misteriotsuenetako baten inguruabarrak argitzen dituen dokumental hau. Mr. Pipeline tutu barruan lortzen zuen lasaitasunagatik ospetsu egin zen bitartean, Gerryk surfing oldarkor batean oinarritu zuen bere karrera, eta odol eta malko ugari isuri behar izan zituen bidetik. Gerry erradikal bezain barea da eta, horregatik hain zuzen ere, sailkaezina da. Garai guztietako surflari eta *shaper* ospetsuenetakoa da; ekintzailea, familia gizona, zinemako izarra eta yogi tradizionala, surfa muga berrietara eramateko gai izan zena. Surf modernoan izan duen eragina neurtezina da eta, lehenengoz, bere istorio osoa kontatu da.

Zuzendaria

Stacy Peralta dokumentalen zuzendari saritua da eta betiko skateboarder garrantzitsuenetako bat ere bai. *Dogtown and the Z-Boys* dokumentalarekin zuzendari onenaren saria irabazi zuen Sundance zinemaldian, filmaren estrainaldiaren urtean (2001). 2004. urtean *Riding Giants* film luzea zuzendu zuen. Bi titulu hauek Surfilmfestival jaialdiko edizio desberdinetan aurkeztu ziren, hemen, Donostian.

Kontaktua: angela@montanaclara.com / 678 335 393